Ayuntamiento irun Udala
Firmante: IRUNGO UDALA / AYUNTAMIENTO DE IRUN
14:23:28

irun
www.irun.org

IRUNGO BELARTZAKO MENDI MAGALEAN APARKALEKU BAT ERAIKITZEKO LANAK ZUZENTZEKO ETA SEGURTASUN ETA OSASUN GAIAK KOORDINATZEKO LAGUNTZA TEKNIKOA EMATEKO ZERBITZUAREN KONTRATAZIOA

CONTRATACIÓN DEL SERVICIO DE DIRECCIÓN DE OBRA Y DE ASISTENCIA TÉCNICA EN MATERIA DE COORDINACIÓN DE SEGURIDAD Y SALUD CON RELACIÓN A LAS OBRAS DE CONSTRUCCIÓN DE UN APARCAMIENTO EN LA LADERA DE BELARTZA DE IRUN

– *BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA* / PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS –

***ARLO SUSTATZAILEA* / ÁREA PROMOTORA**	MUGIKORTASUN, BIDE PUBLIKO ETA OBRA ARLOA / AREA DE MOVILIDAD, VIA PUBLICA Y OBRAS
***ESPEDIENTE KODEA* / CÓDIGO EXPEDIENTE**	2023ZAUN0041

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xede nagusia da IRUNGO BELARTZAKO MENDI MAGALEAN APARKALEKU BAT ERAIKITZEKO LANAK ZUZENTZEKO ETA SEGURTASUN ETA OSASUN GAIAK KOORDINATZEKO LAGUNTZA TEKNIKOA EMATEKO zerbitzuak ematea aurrekontuarekin eta jarraian xedatzen diren aukerako baldintzekin bat etorriz.

Sorta bakar batek osatzen du kontratu honen xedea.

Ez da onartuko eskaintza alternatiborik proposatzea.

1.- OBJETO DEL CONTRATO.

El objeto directo de este contrato es la prestación de servicios de DIRECCIÓN DE OBRA Y DE ASISTENCIA TÉCNICA EN MATERIA DE COORDINACIÓN DE SEGURIDAD Y SALUD CON RELACIÓN A LAS OBRAS DE CONSTRUCCIÓN DE UN APARCAMIENTO EN LA LADERA DE BELARTZA DE IRUN, con arreglo al presupuesto y a las condiciones facultativas establecidas a continuación.

El objeto de este contrato viene configurado como un único lote.

No se admitirá la propuesta de ofertas alternativas.

2.- GUTXIENEKO GIZA TALDEA.

Plegu honetan adierazitako lan guztiak behar bezala egiteko, atxikitzen den giza taldean teknikari hauek egon beharko dira gutxienez:

2.- EQUIPO HUMANO MÍNIMO.

Para poder desarrollar correctamente todos los trabajos indicados en el presente Pliego, el equipo humano adscrito deberá estar compuesto como mínimo por los siguientes técnicos:

- Obra-zuzendaria: *Bide, ubide eta portuetako ingeniaria edo arkitektoa.*
- Kontrolerako eta Zaintzarako erdi-mailako teknikaria: *Herri-lanetako ingeniari teknikoa (HLIT), arkitekto teknikaria edo Eraikuntza ingeniaria.*
- Instalazioak egikaritzeko zuzendaria: *Instalazioetako goi-mailako ingeniari espezialista.*
- Topografiako taldea.
- Zaintzailea.
- Segurtasun eta Osasuneko koordinatzailea.

- Director/a de Obra: *Ingeniero/a de Caminos, Canales y Puertos o Arquitecto/a.*
- Técnico/a medio para Control y Vigilancia: *ITOP, Arquitecto/a Técnico o Ingeniero/a de Edificación.*
- Dirección de ejecución de instalaciones: *Ingeniero/a superior especialista en instalaciones.*
- Equipo de topografía.
- Vigilante
- Coordinador/a de Seguridad y Salud.

Tituluak aipatutakoak edo Espainiako Goi Mailako Hezkuntzako Prestakuntzaren Esparruko baliokideak izan ahalko dira, eta dagokion unibertsitate-agintaritzak ziurtatuta egongo dira.

Las titulaciones podrán ser las mencionadas o sus equivalentes del Marco español de Cualificaciones para la Educación Superior, y estarán certificadas por la autoridad universitaria correspondiente.

Esleipendun gertatzen den aholkularitza-enpresak ezin izango du alde batera utzi proposaturiko taldeko kiderik, ez eta beste batez ordezkatu ere, kontratuaren arduradun teknikoak onetsi gabe.

La empresa consultora que resulte adjudicataria no podrá prescindir de ninguno de los integrantes del equipo propuesto, ni sustituirlo por otro sin la aprobación del Responsable Técnico del Contrato.

Zuzendaritza fakultatiboko agenteak obra-zuzendariaren enpresa berekoak izan daitezke edo ez, eta ez badira, konpromiso-aitorpena aurkeztu beharko dute.

Los/as diferentes agentes de la Dirección Facultativa podrán pertenecer a la misma empresa que el/la directora/a de Obra o no, en cuyo caso deberán presentar su declaración de compromiso.

Proiektua idazteko eskaintzen den taldeak kontratuaren iraunaldi osoan jardun beharko du.

La participación del equipo presentado en la oferta deberá de mantenerse a lo largo de todo el contrato.

Zuzendaritza fakultatiboaren taldeko kide guztiek, gutxienez, 5 urteko esperientzia izan beharko dute plegu honen xedeko obren antzekoak zuzentzen.

Todos los miembros del equipo de la Dirección Facultativa deberán tener una experiencia mínima de 5 años en dirección de obras similares a la que nos ocupa.

Zuzendaritza fakultatiborako atxikiko den giza taldearen osaera aurkeztu beharko da, curriculum vitaea eta antzeko lanetan duten esperientzia eta prestakuntza zehaztuta.
Era berean, berariaz adieraziko dira kide bakoitzak zer funtzio bete behar dituen eta zenbateko dedikazioa izango duen. Lantaldearen egitura eta osaera konpromiso formaltzat hartuko dira, esleipendun gertatuz gero.

Se presentará la composición del equipo humano que se va a adscribir a la Dirección Facultativa, con detalle relativo a su curriculum vitae, experiencia y cualificación en trabajos similares.
Así mismo, se indicarán expresamente las funciones a realizar y la dedicación prevista de cada miembro. La estructura y composición del equipo de trabajo, se entenderá como un compromiso formal, en caso de resultar adjudicatarios.

3.- LANAREN GARAPENA ETA EDUKIA.

Obraren zuzendaritza fakultatiboari dagozkion lanak eta segurtasun eta osasuneko koordinazio-lanak egin beharko dira, eta, zehazki, funtzio hauek:

3.1. ZUZENDARITZA FAKULTATIBOA

3.1.1. OBRAK HASI AURRETIK:

- Dokumentazio teknikoa obra egiteko egokia dela eskatzea eta egiaztatzea *(onetsitako proiektua eta gainerako dokumentazioa, hala nola, beste administrazio batzuen baimenak, lizentziak, etab.).* Proiektuan edo gainerako dokumentazioan egon daitezkeen akatsak edo omisioak zuzentzeko behar diren dokumentuak prestatzea edo eguneratzea.
- Irungo Udaleko Obra arloak izapidetutako agindu-liburua eskatu eta obran edukitzea.
- Gorabeheren liburua obran edukitzea.
- Hondakinak kudeatzeko plana onestea, dagokion onespen-akta eginez, zuzendaritza fakultatiboak sinatua eta jabeak onartua.
- Azpikontratazio-liburua obran dagoela egiaztatzea.
- Zuinketa-aktara bertaratu eta sinatzea; horretan finkatuko da obrak hasteko behin betiko data.

3.1.2. OBRA EGIKARITZEKO JARRAIPENEAN:

OBRA ZUZENDARITZA

Obra nola egiten den zuzendu beharko du alderdi tekniko, estetiko, urbanistiko eta ingurumenekoetan, betiere obra definitzen duen proiektuarekin, aginduzko baimenekin eta kontratuko baldintzekin bat etorriz, proposatutako helburura egokitzen dela

3.- DESARROLLO Y CONTENIDO DEL TRABAJO.

Los trabajos consistirán en la realización de los trabajos correspondientes a la Dirección Facultativa y a la Coordinación de Seguridad y Salud de la Obra, que desempeñará las siguientes funciones:

3.1. DIRECCION FACULTATIVA

3.1.1. ANTES DEL COMIENZO DE LAS OBRAS

- Solicitar y verificar la idoneidad de la documentación técnica para el desarrollo de la obra (*Proyecto aprobado y resto de documentación como autorizaciones de otas administraciones, permisos, licencias, etc*.). Elaborar o actualizar los documentos necesarios para subsanar errores u omisiones que pudiese haber en el proyecto o en el resto de la documentación.
- Solicitar y disponer en obra del Libro de Órdenes dilingeciado por el área de Obras del Ayuntamiento de Irun.
- Disponer en obra del Libro de Incidencias.
- Aprobar el Plan de Gestión de Residuos, extendiendo el Acta de Aprobación correspondiente, suscrita por la Dirección Facultativa y aceptada por la Propiedad.
- Verificar la existencia en obra del Libro de Subcontratación.
- Asistencia y firma del Acta de Comprobación de Replanteo en la que se fijará la fecha definitiva de comienzo de las obras.

3.1.2. EN EL SEGUIMIENTO DE LA EJECUCIÓN DE LA OBRA

DIRECCIÓN DE OBRA

El trabajo a realizar consistirá en dirigir el desarrollo de la obra en los aspectos técnicos, estéticos y medioambientales de conformidad con el proyecto que la define, las autorizaciones preceptivas y las condiciones del contrato, con el objeto de asegurar su

ziurtatzeko.

Era berean, obraren egikaritze materiala zuzendu beharko du, eta horretarako, zuinketak, materialak eta egikaritze egokia egiaztatu beharko ditu, kuantitatiboki eta kualitatiboki kontrolatuz eraikuntza eta eraikitakoaren/urbanizatuaren kalitatea, hura garatzen duen dokumentazio teknikoa, eraikuntza onaren arauak eta eraikuntza-elementuen eta instalazioen antolamendua, betiere proiektuarekin bat etorriz.

Halaber, obran gertatzen diren gorabeherak konpondu beharko ditu, eta proiektuarekiko sor daitezkeen aldaketak prestatu.

Proiektuaren osotasuna osatzen duten agiri guztiek obran egon beharko dute eraikuntza-prozesuan parte hartzen duten agenteen eskura.

Obra Zuzendaritzak behar diren jarraibideak idatziko ditu agindu-liburuan, proiektua behar bezala interpretatzeko.

adecuación al fin propuesto.

Asimismo, en dirigir la ejecución material de la obra, comprobando replanteos, materiales y la correcta ejecución, controlando cuantitativamente y cualitativamente la construcción y la calidad de lo edificado / urbanizado, la documentación técnica que lo desarrolla, las normas de la buena construcción, así como la disposición de los elementos constructivos y de las instalaciones de acuerdo con el proyecto.

Asimismo, en resolver las contingencias que se produzcan en la obra y elaborar las posibles modificaciones que sirjan respecto al proyecto.

Toda la documentación que compone la integridad del proyecto deberá estar en obra a disposición de los agentes intervinientes en el proceso constructivo.

La Dirección de Obra consignará las instrucciones precisas en el Libro de Órdenes para la correcta interpretación del proyecto.

OBRAKO INSTALAZIOAK EGIKARITZEKO ZUZENDARITZA

Honako lan hauek egin beharko ditu:

- Dokumentazio teknikoa eskatu eta dokumentazio hori proiektuan aurreikusitako instalazio guztiak behar bezala egiteko egokia dela egiaztatu beharko du. Hau da, onetsitako proiektuari dagokion zatia eta gainerako dokumentazioa –hala nola enpresa hornitzaileen baimenak– berrikusiko ditu.

- Proiektuan edo gainerako dokumentazioan egon daitezkeen akatsak edo omisioak zuzentzeko behar diren dokumentuak prestatu edo eguneratuko ditu.

- Obrako instalazioen egikaritzea zuzenduko du, eta horretarako, zuinketak, materialak eta egikaritze egokia egiaztatu beharko ditu, kuantitatiboki eta kualitatiboki kontrolatuz eraikuntza eta eraikitakoaren kalitatea, hura garatzen eta ziurtatzen duen dokumentazio teknikoa eta eraikuntza onaren arauak,

DIRECCIÓN DE EJECUCIÓN DE INSTALACIONES DE LA OBRA

El trabajo a realizar consistirá en:

- Solicitar y verificar la idoneidad de la documentación técnica para la correcta ejecución de todas las instalaciones previstas en el Proyecto. Esto es, revisión de la parte correspondiente del proyecto aprobado y del resto de documentación como autorizaciones de empresas suministradoras.

- Elaborará o actualizará los documentos necesarios para subsanar errores u omisiones que pudiese haber en el proyecto o en el resto de la documentación.

- Dirigirá la ejecución de las diferentes instalaciones de la obra, comprobando replanteos, los materiales y la correcta ejecución, controlando cuantitativamente y cualitativamente la construcción y la calidad de lo construido, la documentación técnica que lo desarrolla y certifica, las normas de la buena

betiere proiektuarekin eta obra-zuzendaritzaren jarraibideekin bat etorriz.

- Instalatzaileen arteko koordinazio teknikoa egokia dela zainduko du.
- Instalazioen obra-bukaerako planoak eta funtzionamendu- eta mantentze-arauak berrikusiko ditu.
- Obrako instalazioen harrera egiteko eta legeztatzeko behar den dokumentazioa prestatuko du.

Aurreko horretaz gain, honako lan hauek ere egin beharko dituzte ZUZENDARITZA FAKULTATIBOKO agenteek:

- Behar diren jarraibideak idatziko dituzte agindu-liburuan.
- Maiz joango dira obrak ikustera, eta, nolanahi ere, taldeak bertan egon beharko du etengabe.
- Obren aurrerapenaren asteko jarraipena egingo dute, argazki bidez, jarduketako hainbat puntutatik argazki panoramikoak eginez. Argazki horiek obren hasieratik mantenduko dira.
- Gainbegiratze- eta kontrolatze-lanak egingo dituzte, kontratua arautzen duten pleguekin, onetsitako proiektu teknikoarekin eta behar bezala baimendutako aldaketekin bat etorriz egin dadin obra. Obra etengabe zainduko dute, eta eraikuntza-produktu eta -sistemen arteko bateragarritasuna egiaztatuko dute.
- Obra egikaritzeko kontrol geometrikoa egingo dute, topografiako taldearen bidez.
- Obraren kontrol ekonomikoa egingo dute, ziurtagiri partzialak egin eta sinatuz; horietan, egindako obraren neurketak eta balorazioak agertuko dira.
- Kalitatea kontrolatuko dute obra egikaritzean. Eta, beraz, kalitatea kontrolatzeko programaren jarraipena egingo dute.

construcción, de acuerdo con el proyecto y las instrucciones de la Dirección de Obra.

- Velará por la adecuada Coordinación técnica entre instaladores.
- Revisará los planos fin de obra de las distintas instalaciones y las normas de funcionamiento y mantenimiento.
- Preparará la documentación pertinente para la recepción y legalización de las instalaciones de las obra.

Además de lo anterior, la labor de los agentes de la DIRECCIÓN FACULTATIVA incluirá los siguientes trabajos:

- Consignación en el Libro de Órdenes de las instrucciones precisas.
- Visitas periódicas a realizar de forma asidua a la obra, y, en cualquier caso, con presencia del equipo constante en obra.
- Seguimiento fotográfico semanal del avance de las obras con fotografías panorámicas tomadas desde diferentes puntos de la actuación , los cuales se mantendrán desde el inicio de las obras.
- Supervisión y control para que la obra se realice de acuerdo con los Pliegos que rigen el contrato, el Proyecto Técnico aprobado y las modificaciones debidamente autorizadas. Vigilancia contínua de la obra y comprobación de la compatibilidad entre productos y sistemas constructivos.
- Control geométrico de la ejecución de la obra, mediante equipo de topografía.
- Control económico de la obra con la elaboración y suscripción de las certificaciones parciales, en la que figurarán las mediciones y valoraciones de la obra ejecutada.
- Control de calidad en la ejecución de la obra. Con el consiguiente seguimiento del Programa de control de calidad.

- Enpresa esleipendunak egindako lan-plana kontrolatu eta haren jarraipena egingo dute, eta Irungo Udalari jakinaraziko diote, desorekarik gertatzen bada obra-epeei eta prezio kontrajarriei dagokienez edo aurkeztutako ziurtagirietan egindako neurketa-aldaketei dagokienez.

- Hondakinak kudeatzeko planaren jarraipena egingo dute. Hondakinak kudeatzeko plana aplikatzen dela zainduko dute, Irungo Udalak horretarako izendatzen duen teknikariarekin batera.

- Laguntza teknikoa emango dute geotekniaren alorrean.

- Laguntza teknikoa emango dute egituren alorrean.

- Segurtasuna eta Osasuna koordinatuko dituzte obrak egin bitartean.

- Irungo Udalak deitzen dituen bileretara joango dira, obren jarraipen egokia egiteko.

- Hirugarrenekiko harremanak kudeatuko dituzte, zerbitzuak (energia elektrikoa, telefonia, ura, etab.) hornitzen dituzten konpainiekin egin beharreko kudeaketak barne, eta herritarrekiko harremanak ere kudeatuko dituzte (bileretara joatea, infografiak egitea, komunikatuetarako dokumentazioa idaztea, obren egoerari buruzko erakusketak eta/edo aurkezpenak egitea hala behar denean).

- Gorabehera tekniko eta ekonomikoak aurreikusi eta haien konponbideari buruzko txostena egingo dute.

- Hala badagokio, obrak gauzatzearen ondorioz proiektuak doitzeko dokumentazioa idatziko dute, edo, hala badagokio, obretan aldaketak egiteko behar den dokumentazio guztia, planoak eguneratu daitezen eta plano eguneratu horiek beti egon daitezen bai obran bai Irungo Udalaren esku. Proiektuko akatsak edo omisioak zuzentzeko eta obrarekin jarraitzeko behar diren dokumentu guztiak ere egingo dituzte.

- Control y seguimiento del plan de trabajos realizado por la empresa adjudicataria y notificaciones al Ayuntamiento de Irun de cuantos desajustes se produzcan con respecto a plazos de obra y a precios contradictorios o variaciones de medición en las certificaciones presentadas.

- Seguimiento del Plan de Gestión Residuos. Se velará por la aplicación del Plan de Gestión de Residuos, conjuntamente con el técnico que resulte designado para ello por parte del Ayuntamiento de Irun.

- Asistencia técnica en geotecnia.

- Asistencia técnica en estructuras.

- Coordinación de Seguridad y Salud durante la ejecución de las obras.

- La asistencia a las reuniones que sean convocadas por el Ayuntamiento de Irun, para un correcto seguimiento de la ejecución de las obras.

- Gestión de la relaciones con terceros, incluída las gestiones necesarias con las diferentes compañías suministradoras de servicios (energéia eléctrica, telefonía, agua, etc), y la relación con la ciudadanía (asistencia a reuniones, realización de infografías, redacción de documentación para comunicados, exposiciones y/o presentaciones de la situación de las obras en los momentos de obra en que así se requiera).

- Previsión de posibles incidencias técnicas y económicas, e informe sobre su solución.

- Redacción, en su caso, de la documentación correspondiente a los ajustes de proyecto derivados de la ejecución de las obras, o, en su caso, de toda la documentación precisa para las modificaciones en obra, de forma que se vayan actualizando planos que siempre existan tanto en obra como en manos del Ayuntamiento de Irun planos actualizados. También se incluirán todos los documentos necesarios para subsanar errores u omisiones de proyecto y para la continuidad de la obra.

- Obraren aldaketen edo beharren ondorioz beharrezkoa izan litekeen edozein proiektu aldatu idatziko dute.

- Redacción de cualquier proyecto modificado que, como consecuencia de las modificaciones o necesidades de la obra, pudiera ser necesario.

- Udaleko teknikariek beharrezkotzat jotzen badituzte, txosten ekonomiko, aldi baterako edo tekniko guztiak egingo dituzte aldian-aldian, obraren jarraipena egiteko.

- Realización de cuantos informes periódicos de seguimiento de la obra, tanto económicos como temporales o técnicos, que los técnicos municipales consideren necesarios.

- Obretako kontratisten eta azpikontratisten segimendua eta identifikazioa egingo dituzte, hilero.

- Seguimiento e identificación de contratistas y subcontratistas presentes en las obras con periodicidad mensual.

- Txostenak idatziko ditu hilero, eta txosten horiek honako hauek jasoko dituzte gutxienez:

- Redacción de informes mensuales que contemplen como mínimo:

✓ Hilean zer lan egin diren eta obra oro har nola dagoen.
✓ Jarraipen ekonomikoa, oro har portzentajeetan gauzatutako obra-portzentajeekin eta kapituluka, hilabetean eta hasieratik.
✓ Dagokion hilabetean obrara egindako bisitetako aktak.
✓ Hilean gertatu diren gorabeherak.
✓ Obra-planaren eta aurreikusitako lanen jarraipena eta eguneratzea eta hurrengo hilabetean zer lan egin behar diren, afektazioak eta konponbideak adieraziz halakorik sortzen bada.

✓ Los trabajos ejecutados en el mes y la situación de obra en su conjunto.
✓ Seguimiento económico con los porcentajes de obra ejecutados porcentualmente en general y por capítulos en el mes y desde su inicio.
✓ Las actas de las visitas de obra en el mes correspondiente.
✓ Posibles inidencias acontecidas en el mes.
✓ Seguimiento y actualización del plan de obra y trabajos previstos a ejecutar en el mes siguiente indicando las afecciones y soluciones en caso de que se generen.

- Obraren kontrola. Obra edo obra-unitateak partez edo guztiz bukatu ondoren, dagozkion egiaztapen- eta zerbitzu-probak egingo dituzte. Obra bukatuaren kontroletatik, egindako zerbitzu-probak eskatuko zaizkie instalatzaileei. Bereziki, egikaritze materialeko aurrekontua 300.000 eurotik gora duen eraikuntza- eta/edo urbanizazio-obra bada, Eusko Jaurlaritzaren 238/1996 Dekretua betez. Prozesu horretan sortutako dokumentazioa Eusko Jaurlaritzak araututako eta erregelamenduz onetsitako fitxa batzuetan jaso beharko da. Fitxa horiek Kalitatea Kontrolatzeko Liburua osatuko dute, 2008ko apirilaren 16ko Aginduaren arabera. Bestalde, baldin eta materialak edo saiakuntzen, proben eta analisien emaitzak egikaritze-proiektuan zehaztutakoarekin bat ez badatoz, zuzendaritza fakultatiboak neurri zuzentzaile egokiak ezarri eta justifikatuko ditu, eta neurri horiek Agindu eta Laguntza Liburuan nahiz Kalitatea

- Control de la obra. Se realizarán las comprobaciones y pruebas de servicio pertinentes una vez terminada la obra o unidades de obra parcial o totalmente. De los controles de Obra terminada se recabará de los diferentes instaladores las pruebas de servicio realizadas.Particularmente, si se trata de una obra de edificación y/o urbanización con PEM superior a 300.000 Euros, en cumplimiento del D.238/1996 del Gobierno vasco, la documentación generada en este proceso habrá de reflejarse en una serie de Fichas Normalizadas y aprobadas reglamentariamente por el Gobierno Vasco, que constituirán el Libro de Control de Calidad, según O. de 16 de abril de 2008. Por su parte cuando los materiales o resultados de los ensayos, pruebas y análisis no sean conformes a lo especificado en el Proyecto de Ejecución, la Dirección Facultativa establecerá y justificará las medidas correctoras oportunas reflejándose éstas, tanto en el Libro de Órdenes y

Kontrolatzeko Liburuan jasoko dira.

- Era berean, obra egin bitartean kalitate-kontrolean edozein aldaketa egiten bada, Agindu Liburuan jasota geratu beharko du, bai eta dagokion Kontrol Plan aldatuan ere, eta baita administrazioak obran kalitatea kontrolatzeko egin dezakeen ikuskapena ere, eta ikuskapen horri buruzko txostena, berriz, kalitatea kontrolatzeko kudeaketan sortutako dokumentazioan sartuko da.

- Obren harrera jakinarazi egingo da, eta bertaratu eta formalizatu, harrera-akta sinatuz. Akta horretan, neurketa orokorra hasteko data finkatuko da, Sektore Publikoko Kontratuen Legean ezarritako epeetan.

3.1.3. OBRA HARRERAREN ONDOREN

- Amaierako egoeraren jasotze topografikoa egingo da.
- Obraren neurketa orokorra egingo da. Egintza hori Neurketa Orokorraren Aktan formalizatuko da, Obra Zuzendaritzak eta kontratistak sinatuta.

- Kontratistari neurketa orokorraren emaitza jakinaraziko zaio, adostasuna eman dezan edo egokitzat jotzen dituen eragozpenak adieraz ditzan, Sektore Publikoko Kontratuen Legean ezarrita dagoen bezala.

- Neurketa orokorraren emaitzan oinarrituta eta Sektore Publikoko Kontratuen Legeak ezarritako epean, eraikitzaileak kobratzeko benetan zer obra burutu duen (zerrenda balioztatua) idatziko du Obra Zuzendaritzak.

- Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legean aurreikusitako epeetan egingo da obra-jatorriko amaierako ziurtagiria, dagokion txostenarekin batera.

- Eraikuntza- eta eraispen-hondakinen eta -materialen kudeaketari buruzko azken txostena idatzi beharko da, hondakinak kudeatzeko plana aplikatzeko eta haren jarraipena egiteko udalak

Asistencias, como en el Libro de Control de Calidad.

- Así mismo cualquier modificación del control de calidad que surja durante el proceso de la obra habrá de quedar reflejado en el Libro de Órdenes, además de en el correspondiente modificado de Plan de Control, al igual que la inspección de control de calidad a que pueda verse sometida la obra por parte de la administración, pasando a formar parte de la documentación generada en la gestión de control de calidad el informe que se emita de dicha inspección.

- Notificación, asistencia y formalización de la recepción de las obras mediante la firma del Acta de Recepción en la que se fijará la fecha para el inicio de la medición general en los plazos establecidos en la ley de Contratos del Sector Público.

3.1.3. TRAS LA RECEPCIÓN DE LAS OBRAS

- Levantamiento topográfico del estado final.

- Ejecución de la medición general de la obra, acto que se formalizará en el *Acta de Medición General* firmada por la Dirección de Obra y el contratista.

- Notificación al contratista del resultado de la medición general para que según lo estipulado en la Ley de Contratos del Sector Público, preste su conformidad o manifieste los reparos que estime oportunos.

- Sobre la base del resultado de la medición general y dentro del plazo que establece la Ley de Contratos del Sector Público, la Dirección de Obra redactará la correspondiente relación valorada.

- La expedición dentro de los plazos contemplados en la Ley de Contratos del Sector Público de la Certificación Final a origen de obra, con su informe correspondiente.

- Redacción del informe final de la gestión de residuos y materiales de construcción y demolición, con asistencia del técnico designado por el Ayuntamiento para la aplicación y seguimiento del Plan de Gestión de Residuos, con

izendatutako teknikariaren laguntzaz. Horretarako, eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen dituen ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuaren 6. artikuluan eta III. eranskinean adierazitako edukia eta irismena hartuko dira kontuan.

el contenido y alcance que se señala en el artículo 6 y en el Anexo III del Decreto 112/2012, de 26 de junio, por el que se regula la producción y gestión de los residuos de construcción y demolición.

- Obra-amaierako proiektua idatzi beharko da. Bertan, obra egikaritzearen laburpena eta sortu diren arazoen ondorioz hartutako irtenbideak jasoko dira. Horrez gain, dokumentazio hau ere jasoko da:

  A.- ZIURTAGIRIAK ETA TXOSTENAK:
  - Obra-amaierako ziurtagiria.
  - Kalitate Kontrolaren Ziurtagiria
  - Instalazioen alorreko zuzendaritza- eta legeztatze-ziurtagiriak.
  - Energia-efizientziaren ziurtagiria.
  - Jarduera-ziurtagiria.
  - Segurtasun eta Osasuneko koordinazioaren amaierako egintza-ziurtagiria.
  - Hondakinen kudeaketaren amaierako txostena.

  B.- OBRAKO KALITATE KONTROLAREN DOKUMENTAZIOA
  - Egindako kontrolari buruzko dokumentazioa.
  - Produktuen dokumentazioa, eta produktua erabiltzeko eta mantentzeko jarraibideak eta dagozkion bermeak, hala dagokionean.
  - Kalitateari buruzko dokumentazioa, eraikitzaileak obra-unitate bakoitzari buruz prestatua. Dokumentazio horri kontrolen eta haien emaitzen zerrenda erantsiko zaio, EKT aplikatu behar zaien obretan.

  Beharrezkoa duten obretan, Kalitatea Kontrolatzeko Liburua osatzen duten fitxa normalizatuak erantsiko dira beteta. Halaber, eraikina eta haren instalazioak erabili eta mantentzeko jarraibideei buruzko dokumentazioa erantsiko da, aplikatu behar zaion araudiarekin bat etorriz.

- Redacción de un proyecto fin de obra que recoja, además de un resumen de la ejecución de la obra y de las soluciones adoptadas debido a la problemática que haya podido ir surgiendo, la siguiente documentación:

  A.- CERTIFICADOS E INFORMES:
  - Certificado de Fin de obra
  - Certificado de Control de Calidad
  - Certificados en Materia de Instalaciones de dirección y legalización.
  - Certificado de eficiencia energética.
  - Certificado de actividad.
  - Certificado-acto fin de coordinación de Seguridad y Salud.
  - Informe Final de Gestión de Residuos.

  B.- DOCUMENTACIÓN DE CONTROL DE CALIDAD DE LA OBRA
  - Documentación del Control realizado.
  - Documentación de los Productos, así como sus instrucciones de uso y mantenimiento y las garantías correspondientes cuando proceda.
  - Documentación de la calidad, preparada por el constructor sobre cada una de las unidades de obra. A esta documentación se adjuntará una relación de controles y sus resultados, en aquellas obras del ámbito de aplicación del CTE.

  En aquellas obras que lo requieran, se adjuntarán cumplimentadas las fichas normalizadas que conforman el Libro de Control de Calidad. Así mismo, se adjuntará la documentación relativa a las instrucciones de uso y mantenimiento del edificio y sus instalaciones, de conformidad con la normativa que le sea de aplicación.

C.- OBRA AMAIERAKO PLANOAK

"as built" planoak edo obra-amaierako planoak. Horietan, banaketa-planoak, oinplanoa, sekzioak eta eraikuntza-xehetasunak jasoko dira, eta baita instalazio guztien oinplanoa, sekzioak eta xehetasunak ere.

- Bermealdia amaitu aurretik, berrikusi egingo dira obrak, eta beharrezko txostenak egingo dira kontratuaren likidazioa egin arte eta/edo, hala badagokio, bere garaian jarritako bermea kontratistari itzuli arte, Sektore Publikoko Kontratuen Legearekin bat etorriz.

- Zuzendaritza fakultatiboak urte bat edo bi gehiagoko laguntza teknikoa eskaini badu, egindako obraren egoerari edo funtzionamenduari buruz eskatzen zaizkion txostenak idatzi beharko ditu denboraldi horretan.

3.1.4. OBRA KONTRATUA LIKIDATZEKO JARDUKETAK:

Berme-epea amaitu aurreko hamabost egunetan, obraren zuzendari fakultatiboak, ofizioz edo kontratistak eskatuta, txosten bat idatziko du obraren egoerari buruz.

Txostena aldekoa ez bada eta antzeman diren akatsak obra-lanen ondoriozkoak badira, hau da, ez badira eraikitakoaren erabileragatik sortuak, berme aldian, zuzendari fakultatiboak dagozkion jarraibideak emango dizkio kontratistari, eraikitakoa behar bezala konpontzeko, eta horretarako epe bat emango dio. Epe horretan, enpresa kontratistak obrak zaintzen jarraitu beharko du, berme-epea luzatu izanagatik inolako zenbatekorik jasotzeko eskubiderik gabe.

Berme-epea igaro ondoren, obren egoerari buruzko obra-zuzendaritzaren txostena aldekoa bada edo, bestela, eraikitakoa konpondu ondoren, obra-zuzendaritzak, hilabeteko epean, benetan egindako obren likidazio-proposamena egingo du.

C.- PLANOS FIN DE OBRA

Planos "as built" o planos fin de obra incluyendo planos de distribución, planta, secciones y detalles constructivos, así como planta, secciones y detalles de todas las instalaciones.

- La revisión de las obras previa a la terminación del periodo de garantía, y la emisión de los informes necesarios hasta la liquidación del contrato y/o devolución al contratista en su caso de la garantía depositada en su día, de acuerdo a la Ley de Contratos del Sector Público.

- En caso de que la Dirección Facultativa haya ofertado una asistencia técnica adicional de uno o dos años, la redacción durante este periodo de los informes que se le soliciten en relación con el estado o funcionamiento de la obra ejecutada.

3.1.4. ACTUACIONES DIRIGIDAS A LA LIQUIDACIÓN DEL CONTRATO DE OBRA:

Dentro del plazo de quince días anteriores al cumplimiento del plazo de garantía, el director facultativo de la obra, de oficio o a instancia del contratista, redactará un informe sobre el estado de las obras.

En el caso de que el informe no fuera favorable y los defectos observados se debiesen a deficiencias en la ejecución de la obra y no al uso de lo construido, durante el plazo de garantía, el director facultativo procederá a dictar las oportunas instrucciones al contratista para la debida reparación de lo construido, concediéndole un plazo para ello durante el cual continuará encargado de la conservación de las obras, sin derecho a percibir cantidad alguna por ampliación del plazo de garantía.

Transcurrido el plazo de garantía, si el informe de la Dirección de Obra sobre el estado de las mismas fuera favorable o, en caso contrario, una vez reparado lo construido, se formulará por la Dirección de Obra en el plazo de un mes, la propuesta de liquidación de las obras realmente ejecutadas.

Obrak egin aurretik, egin bitartean eta egin ondoren egin beharreko lanez gain, obra egin behar duen kontratista esleipendunarekin edozein kontratu-gorabehera konpontzeko beharrezkoak diren txostenak idatzi beharko ditu zuzendaritza fakultatiboak edozein unetan.

Además de las labores mencionadas a ejecutar antes, durante y después de la ejecución de las obras, la Dirección Facultativa deberá redactar, en cualquier momento, cuantos informes sean precisos para resolver cualquier tipo de incidente contractual con el contratista adjudicatario de la ejecución de la obra.

3.2. SEGURTASUN ETA OSASUN KOORDINAZIOA

Enpresa esleipendunak egin beharreko lanak oinarrizko jarduera eta puntu hauek bilduko ditu gutxienez:

- Segurtasuneko eta Osasuneko koordinatzailea izango da obrak egin bitartean, urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuaren 9. artikuluan adierazten diren obligazioekin.
- Dagokion txostena egingo du kontratistak idatzitako Segurtasun eta Osasun Planari buruz, Administrazioak obrak hasi aurretik onets dezan.
- Ikuskatu eta kontrolatu egingo du kontratistak betetzen dituela onetsitako Segurtasun eta Osasun Planean ezarritako baldintzak eta indarrean dagoen legeria.
- Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen 15. artikuluan jasotako prebentzio-ekintzaren printzipioak betetzen direla bermatuko du.
- Langileek eta enpresak obrako segurtasunaren eta osasunaren alorrean interesatu eta kolaboratu dezaten sustatuko du.
- Obrako lanetan arrisku-egoerak antzeman eta Obra Zuzendaritzari jakinaraziko dizkio, eta prebentzio egokia proposatuko du.
- Ordenari, garbitasunari, inguruneari, instalazioei eta makinei dagokienez, baldintzak aztertuko ditu laneko arriskuak antzemate aldera.
- Gune arriskutsuak behar bezala seinaleztatzen eta balizatzen direla edo desnibeletan eta lan-guneetako perimetroetan beste babes-neurri

3.2. COORDINACION DE SEGURIDAD Y SALUD

El trabajo a desarrollar por la empresa adjudicataria incluirá como mínimo las siguientes actividades y puntos básicos:

- Será el coordinador de Seguridad y Salud durante la ejecución de las obras, con las obligaciones indicadas en el Art. 9 del Real Decreto 1627/1997, de 24 de octubre.
- Elaborará el oportuno informe sobre el Plan de Seguridad y Salud redactado por el contratista para su aprobación por la Administración antes del inicio de las obras.
- Supervisión y control de que el Contratista cumple las condiciones establecidas en el Plan de Seguridad y Salud aprobado, así como en la legislación vigente.
- Velar por que se cumplan los principios de acción preventiva que se recogen en el artículo 15 de la Ley de Prevención de Riesgos Laborales.
- Promover el interés y cooperación de los trabajadores y de la empresa constructora en orden a la Seguridad y Salud en la obra.
- Detectar y comunicar a la Dirección de Obra todas las situaciones de riesgo en los diferentes tajos abiertos en la obra, proponiendo la prevención adecuada.
- Examinar las condiciones relativas al orden, limpieza, ambiente, instalaciones y máquinas con referencia a la detección de riesgos profesionales.
- Supervisar la correcta señalización de las zonas peligrosas y el balizamiento u otras medidas de protección en los desniveles y en los perímetros de

batzuk hartzen direla ikuskatuko du.

- Aholkulari aditua izango da Segurtasun eta Osasun Batzordeetan.
- Segurtasun- eta osasun-unitateak obran ezartzen direla kontrolatuko du.
- Istripu-parteak aztertuko ditu, zer inguruabarretan eta zergatik gertatu diren aztertuz, eta, halaber, berriz ez gertatzeko ukitutako kontratistak proposatzen dituen neurriak ere aztertuko ditu.
- Obren amaierako egoera egiaztatuko du, segurtasun- eta osasun-arloari dagokionez, zerbitzuan jarri aurretik.
- Hilero, txosten xehatu bat idatziko du, eta txosten horretan, hilabetean egindako bisitaldiak, ikusitako gorabeherak, hartutako neurriak eta jarduketa-proposamenak deskribatuko ditu

las zonas de trabajo.

- Actuar como experto asesor en los Comités de Seguridad y Salud.
- Controlar la puesta en obra de las unidades de seguridad y salud.
- Analizar los partes de accidentes de la obra, estudiando las circunstancias y causas que los motivaron y las medidas a adoptar para eliminar los riesgos de repetición que proponga el contratista afectado.
- Comprobar el estado final de las obras en lo referente a la seguridad y salud antes de su puesta en servicio.
- Mensualmente, redactará un informe detallado describiendo las visitas realizadas en el mes, las incidencias observadas, las medidas adoptadas y las propuestas de actuación.